



UDALBILTZA

PRO IEK TUAK

Aurkibidea

- 0.** Sarrera
- 1.** Ikerbiltza programa
- 2.** Hurbiltzen Programa
- 3.** Hartu-eman: Esperientzien Bankua
- 4.** Lurgida: Mapa turistikoa
- 5.** Euskal Herriko Historiaren memoria gunea
- 6.** Nola eman laguntza?

ELKARREKIN ERAIKI DEZAGUN EUSKAL HERRIA: UDALBILTZAREN PROIEKTUAK

Udalbiltzak 2017 urtean egin zuen gogoeta prozesuan hainbat lan ildo zehaztu zituen hurrengo urteetarako. 2018-2021 epealdian ondoko lehentasunak lantzen dihardugu:

1. Hautetsien, eragileen eta udalen saretzea. Udalbiltza udal eta hautetsien biltzarra izanik, hauen arteko saretzea bultzatzea da bere oinarritzko eginkizuna. Horrekin batera Udalbiltzak eragileekin harremana sakondu nahi du.
2. Burujabetza eta tokiko garapena. Tokiko garapenaren bidez, herriaren garapenerako oinarritzko tresnak eskuratu nahi dira (energia, eta elikadura bereziki) batez ere arlo sozio-ekonomikoan eta egunerokoan eraginez.

Lan ildo horiek oro har hainbat urtetan zehar landuko dira proiektu desberdinen bidez, batzuk urte bakarrez eta beste batzuk hainbat urtetan luzatuko direnak.

UDALBILTZAREN EGITURAKETA

Gaur egun, Udalbiltza Partzuergoak 77 udal ditu, eta Ipar Euskal Herriko herriko etxeak Partzuergoan sartzeko formulak aztertzen ari gara oztopoak oztopo. Orotara 1050 hautetsi inguru atxikituak dira EAeko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hiru hautetsien elkartetan.

Hiru elkarte hauek Federazio europar bat sortzeko prozesuan daude. Behin Federazioa osatu eta, Partzuergoan sartzeko eskaera egingo lukete, irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu bezala.

2019ko urrian izan zen Kontseilu Nagusian Batzorde Eragileko 7 partzuergokideen ordezkariak hautatu ziren.

1. Ikerbiltza

HELBURUAK

Euskal Herriko udalak garatzea euskal unibertsitatean garatzen den ezagutza baliatuaz.

DESKRIBAPENA

Ikerbiltza Euskal Herriko herriak garatzeko eta kohesionatzeko lanabes baliagarria da. Izan ere, programaren helburua da Euskal Herriko unibertsitateetan sortzen den jakintza udal eremuetan aplikatzea eta praktikan jartzea, gaurko eta biharko belaunaldien ibilbide profesionalari bultzada bat ematen dion bitartean.

Dagoeneko lau ikasturte igaro dira programa hau abiatu zenetik, eta bitarte honetan, Euskal Herriko unibertsitateetako hainbat ikaslek zenbait udaletan egin dituzte euren gradu amaierako proiektuak, udal horiek izan ditzaketen behar edo erronka ezberdinen inguruan euren lanak gauzatu.

2018an, Udalbiltza Partzuergoak erabaki zuen programa honetan sakontzea eta ildo honi jarraipena ematea. Ikerbiltzaren lan eremuak, ordea, Burujabetza eta Tokiko Garapenean kokatu dira, eta horregatik segidako lan eremuak landuko dira programa honen baitan:

a) ENERGIA BURUJABETZA: 2018-2019 ikasturtean, ikerketa bat abiatu da Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko ataleko (UPV/EHU) ikasleekin eta irakasleekin. Lanketa Nafarroako Pirinioko Aezkoa bailaran eta Aiaraldean (Araba eta Bizkaia) egiten ari dira.



Ikerketaren helburuak:

- Baliabide energetikoen azterketak: tokiko baliabideen azterketa egin.
- Eraginkortasun plana egin: lekuko baliabideak eta beharrak ezagututa, eraginkortasun plana diseinatu eta abian jarri.

b) GIZARTE EKONOMIA: Sarritan, Euskal Herria Gizarte Ekonomia eta Eraldatzailea lantzen den eremurik nagusienetako bat dela esaten da. Hori dela eta, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa masterreko ikasleekin diagnostiko bat abiatu du gizarte ekonomiaren errealitatea ezagutzeko. Ostean, lanketa hori etorkizuneko proiektuen oinarria



izango da.

c) ELIKADURA BURUJABETZA: Elikadura Burujabetza gero eta leku gehiago hartzen ari da Euskal Herriko udaletako agendatan. Hori dela eta, Ikerbiltzak lanketa horretan ari diren udalen lanari bultzada bat eman nahi die. Horretarako hiru eskualde identifikatu dira proiektu ezberdinak abiarazteko: Nafarroan, Leiza-Larraun (Mendialdea) eta Sakana eskualdeak; Bizkaian, Lea-Artibai eta Busturialdea eskualdeak; eta Gipuzkoan, Oiartzualdea eskualdean. Leku bakoitzak lanketa propioa izanen du, tokiko beharrei erantzuna emateko. Ipar Euskal Herrian ere aukera ezberdinak aztertzen ari dira proiektuak abian jartzeko.

2. Hurbiltzen

HELBURUAK

Hurbiltzen Udalbiltza Partzuergoaren parekatze edo senidetze programa da. Programa horren bidez, herritarren, udalen eta udalerrien artean epe luzeko lankidetzak iraunkorrak sustatu nahi dira, arlo desberdinetan. Jadanik hainbat adibide ditugu Euskal Herrian, hara nola Aiherra-Antzuola, Iparra-Hegoa edota Uztaritze-Tolosa.

Horrelako esperientzia arrakastatsuak saretu eta garatu nahi dira Hurbiltzen programaren bidez, trukaketak bultzatuz Euskal Herri osoko eskalan.

Batzorde honen bidez, senidetzeen praktika onak identifikatu eta zabaltzeko nahi dira, Euskal Herrian diren senidetzek laguntzeko eta trukaketa berriak garatzeko asmoz.

Horretarako, senidetze egitasmo bat garatu nahi duten partaideei aholkularitza eskaintzen zaie eta Udalbiltza Partzuergoatik proiektuak aurrera eramateko laguntza tekniko ere eskaintzen da.

Une honetan, bi egitasmo nagusi ditugu esku artean: Nafarroako lau Uharten ibilbidea eta Sara-Ataun senidetzearen proiektua.

SARA-ATAUN: Hurbiltzen programaren bidez, senidetzea ikuspegi sozio-ekonomikotik garatzea proposatzen da, beste dimentsio bat emateko. Horretarako, bi herriek komunean duten erronka bati eustea erabaki da: lehen sektorea, hain zuzen ere. Zehazki, egitasmoaren helburu nagusia da herritarrak sentibilizatzea tokiko kontsumoari begira eta tokiko mozkinak balioan jartzea. Kontsumitzaileei bertako elikagaiak erosteko erraztasunak eskaini nahi dira, alegia. Proiektua bi fasetan gauzatuko da: ekoizleen egoerari buruzko diagnostikoa burutu zen, eta horretan oinarrituz, bertako ekoizpenak ikusarazteko aplikazio digitala garatuko da.



LAU UHARTEAK: Nafarroa historikoan izen bereko lau udalerriz izateak, herrion senidetzea ekarri du. Nafarroa Garaiko Uhartek eta Uharte Arakilek, eta antzina Nafarroako Erresumako Bortuz Haraindik Merindadea izan zen Nafarroa Behereko Uharte Garazik eta Uharteherik hitzarmena sinatu zuten 2002an lau udalerrien arteko harremanak sustatzea xede. Ekinbide honen bidez, naturari loturiko eta jasangarriagoa den turismo eskaintza irekia proposatuko da. Oinez edo txirrindaz, herri bat eta bere bizimodua, kultura eta ondarea ezagutzeko beste modu bat izango da.

3. Hartu-eman esperientzien bankua

hartueman
esperientzien bankua

#euskalherria #burujabetza

PROIEKTUAREN DEFINIZIO ETA DESKRIBAPENA

Esperientzien Bankuaren xedea ez da soilik esperientzien zerrenda edo mapeo bat egitea. Udal, eragile eta herri ekimen ezberdinetatik sortzen diren ekinbideak saretzea eta helaraztea da Udalbiltza Partzuergoaren asmoa.

Esperientzien bankua tresna gisa oso interesgarria izan daitekeenez, ondorengo funtzioak esleitu zaizkio:

- Esperientzia ezberdinak biltzea.
- Udalbiltza Partzuergoako egitasmoak herriratzea.
- Eskualdeen arteko ezagutza eta harremanak sustatzea.
- Hautetsiak formatzea.
- Udalentzat interesgarri izan litekeen informazioa eta lanak aurrera ateratzea.



HELBURUAK ETA LAN ILDOAK

Udal, eragile eta herri ekimen ezberdinetatik sortzen eta saretzen ditugun ekimenak beste batzuei helaraztea eta transportagarriak izatea da helburua.

Zein esperientzia mota definitzeko garaian ondorengo lan eremuak /ildoak definitu dira:

1. Energia Burujabetza bilatzen duten esperientziak.
2. Elikadura burujabetza bilatzen duten esperientziak.
3. Etxebizitza eta Hirigintza.
4. Lurra lantzeko irisgarritasuna.

5. Ekonomia (enpresa mundua eta tokiko monetak)
6. Euskara
7. Politika feministak eta parte hartzea



EDUKIEN INGURUKO IRIZPIDEAK

Esperientzien bankuaz hitz egiterakoan jasoko ditugun esperientziak betetzen dituzten ezaugarriak definitu ditugu:

1. Transformatzailea/Eraldatzailea izatea
2. Transportagarria izatea (hots, beste leku batean abian jartzeko posible izan daitekeena)
3. Helburu nagusi bezala gizarte onura duena.
4. Euskal Herrian kokatua.
5. Arrakastatsua izatea (funtzionatzea).

Egun orotara 42 esperientzia jasotzen dira Euskal Herri osoan barreiatuak direnak. Esperientzi hauen informazio zabala ikusgari da, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez ondorengo helbidean: udalbiltza.eus/hartueman.

4. Lurgida

Euskal Herriko mapa turistikoa



HELBURUAK

Euskal Herri osoa aintzat hartuko duen euskarri turistikoa sortu.


DESKRIBAPENA

Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herria ikustarazteko mapa turistikoa egiten dihardu. Mapa hau euskaldunei begira eta atzerritarrei begira eginikoa izango da, hots, Euskal Herria bere osotasunean ezagutzeko mapa.

Udalbiltza Partzuergoaren mapa turistikoa APP formatuan izango da eta atzean web gune bat izango du lau hizkuntzatan garatuko da (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa). Mapa hau egiterakoan, batez ere, orain arte dauden baliabide turistikoeetan jasotzen dena ez errepikatzeko printzipioa izan dugu kontutan. Horregatik, alde batetik, eremuaren ikuspegitik Euskal Herri osoa jasoko duen mapa da.

Mapa honetan ondorengo edukia jasotzen eta prestatzen ari gara:

1. Euskal Herriko 150 udalerrietako informazioa prest dugu.
2. Gure herria hobeto ezagutzeko hainbat ibilbide diseinatzen ari gara (historikoak, kulturalak...)
3. Euskal Herriko ondare inmateriala ikusgai izango da.
4. Euren lurretan camper eta autokarabanak jasoko dituzten etxaldearen informazioa jasotzen ari gara.



5. Hauspotu

Herriak bizituz



HELBURUAK

Euskal Herriko lurralde desorekak paliatzea, ekonomia sozial eraldatzailea bultzatuz

DESKRIBAPENA

Erronka ezberdinak gaindituta etorkizunari begira aurrera doan herria da Euskal Herria. Historiari eta nortasunari lotzen dion zilbor hestearekin apurtu gabe, mende bakoitzak ekarri dizkion beharretara egokitu da. Haatik, azken hamarraldi hauetan, gizartea zenbait erronka gainditzeko zailtasunak izaten ari da. Hiriak eta metropoliak handitzen ari diren neurrian, Euskal Herriko landa eremuko argia itzaltzen ari da emeki-emeki.

Euskaldunon lurraldea osatzen duten herrien arteko desoreka ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Neurririk hartzen ez bada, egoerak ez du atzera bueltarik izanen. Hori dela eta, Udalbiltza aspaldidanik ari da lanean arazo horri aurre egiteko. Konpromiso horren adibidea da, esaterako, 2013-2015 urteen artean Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak garatu zuen "Euskal Pirinioetan lan eta bizi" programa. Egitasmo horren barruan, Nafarroa Garaiko, Nafarroa Beherako eta Zuberoako herritarrek, eragileek eta erakundeek sustaturiko hainbat proiektu diruz lagundu zituen Partzuergoak. Izan ere, datuen arabera, eremu hori da euskal lurralderik baztertuenetakoa: gero eta jende gutxiago bizi da zonalde horretan, zailtasunak dituzte zerbitzuen irisgarritasunera begira eta biztanleria gero eta zaharra da.

Esperientzia hartatik oso fruitu onak bildu zituen Udalbiltzak. Hori dela eta, programa lurralde gehiagotan zabaltzearen aldeko hautua egin du euskal erakunde publikoak. Horretarako, ibilbide horretan aurrera egiteko, Koop 57 taldea aukeratu du bidaide. Kooperatiba honek zerbitzu finantzario etikoak eta solidarioak eskaintzen ditu; hau da, bitartekaritza finantzarioaren bidez, ekonomia sozial eraldatzailea oinarrian duten proiektuak finantzatzea da bere funtzioa. Hala, bi erakundeen artean elkarlanean,

Sozial Eraldatzailea (ESE) oinarritzen diren proiektuak sustatuko dira Euskal Herrian: langabezia tasa altua duten eskualdeetan, demografia arazoak dituzten herrietan eta zerbitzuen irisgarritasunean arazoak dituzten lekuetan.



6. Euskal Herriko

historiaren memoria gunea

HELBURUAK

Euskal Herriko historiaren erakusleho bat eskaini nahi du Udalbiltza Partzuergoak Interpretazio Zentro bat eraikiz Senpereko herrian. Egitasmo honen helburua da euskal Herriaren Historia ezagutzera ematea eta transmitzea publiko zabalari, gazteei lehenetsua emanez. Horretarako, proiektu honen edukiak modu pedagogikoan gizarteratu nahi dira.

DESKRIBAPENA

Euskal Herriko dozena bat historialarik landu dituzte hainbat testu eta horietan oinarrituz 22 bideo osatu dira, QR kode batzuen bitartez ikusgai izango direnak. Horrez gain, Mondragon Unibertsitateko ikerketa talde batek osatu du proiektuaren komunikazio plangintza. Aire libreko gune hori publiko guztiari irekia izango da eta sartzea dohain.

